

Elkarri-ren bideoa bahitu du Ertzaintzak Entzutegi Nazionaleko epailearen aginduz

HBren kontrako prozesua «elkarrizketaren aukeraren auzipetzea» dela dio taldeak

Elkarri-k bakerako lau proposamenekin osatutako bideoa bahitu zuen atzo arratsaldean Ertzaintzak, Entzutegi Nazionaleko Ismael Moreno epailearen aginduz. Ertzaintzak jendeaurreko emankizun baten aurretik agertu ziren, eta bi kopia eraman zituzten epailearen agindua erakutsi ondoren.

Erredakzioa / Donostia

ELKARRI-K elkarrizketaren eta informatzeko eta eztabaidatzeko askatasunaren eskubidearen defentsan ekitaldi bat antolatu zuen atzo arratsaldean Donostiako hotel batean. Ekitaldi horretan, Elkarri-k ekitaldi bideoa eskaintzeko asmoa zuten, baina emankizuna hasi aurretik ertzain batzuk agertu ziren Entzutegi Nazionaleko Ismael Moreno epailearen agindu batekin. Agiri horretan, epaileak dei egiten zion Elkarri-ri bideoaren emankizunik ez egiteko, eta Ertzaintzari bideoa eskuratzeko. Ez ematekotan, Elkarri-ren goitza guztiak miatzeko aginduko lukeela ohartarazten zuen Entzutegi Nazionaleko epaileak.

Elkarri-k bi kopia eman zizkien ertzainei eta eskatu zien bi zehaztapen egiteko: batetik, bideoa Elkarri-k egin zela eta bakerako proposamenak laburbiltzen dituela; eta, bestetik, joan den urtarrilaren 23an, Auzitegi Goreneko epaileari eman zizkiotela bideoaren kopia bat eta ordura arte eginiko emanaldien zerrenda.



Elkarri-ko ordezkariak Donostiako hotel batean eman nahi zuten atzo bideoa.

ANDER GILLENEA

Fernandez Elkarri-ko bozera-maileak gogor kritikatu zuen epailearen agindua. Azken urtean, 150 emanaldi egin dituztela eta 3.000 pertsona inguruk ikusi dutela gogoratu ondoren, Jonan Fernandezek esan zuen Elkarri-k ez diola uko egiten bideo horren erabilpenari. Agindua aztertu ondoren errekurritu egingo dutela iragarri zuen Fernandezek.

Bideoaren bahiketa eskubide zibilen kontrako eraso larritzat eta zentsura ekintzat jo zuen Elkarri-ko koordinatzaileak. «Adin gutxioko bezala tratatzen gaituzte, zer ikusi ahal dugun eta zer ez esanez», gaineratu zuen Jonan Fernandezek.

Bideo emankizunik gabe baina

ekitaldia egin zen. Jonan Fernandezek Elkarri-ren agiri bat irakuri zuen, HBren Mahai Nazionalaren kontrako prozesuari buruzko hainbat gogoeta egiteko. Elkarri-ren ustez, HBko Mahai Nazionaleko auzipetzea eta espetxeratzea «burugabekeria» da, bai ikuspuntu juridikotik bai bake-tzearen ikuspuntutik ere. «Elkarrizketaren aukerari ezeko egoskorra eta baketzeko alternatiba ezak eragiten du prozesu juridiko, politiko eta mediatikoak bultzatea, esate baterako, gure herriaren %15 ordezkatzen duen indar politiko baten zuzendaritza espetxeratzen ari dena», dio Elkarri-ren agiriak.

HBren kontrako prozesu judi-

ziala «elkarrizketaren eta jarrera alderaketaen aukeraren auzipetzea da», Elkarri-k esan duenez. Edozein konponbide dialogatuk alde bakoitza bere abiapuntua ezagutaraztea beharrezkoa du, Elkarri-ren ustez. Era berean, oso larria eritzi zintz egarte mugimenduak ontzat emateari ETaren bideoa ikusi, aztertu edo eztabaidatzea delitu izan daitekeela. «Eskubide zibilen kontrako eraso zuzena da», esan zuen.

Bestalde, Ertzaintzak Tasio Erkizari emandako tratua salatu zuen atzo HBk. HBk dioenez, Ertzaintzaren esku egon zen denboran tratu txarrak jaso zituen Erkizariak. Adibidez, gau osoan esku-burdirak jarrita izan zuten komisaldegiko ziegan. «Ertzaintzaren komisaldegia Intxaurren rondo edo Intxaurren bezalako toki makabroen parean jartzen ari dira», salatu zuen HBk. X

Barne Ministerioak bost euskal preso hurbilduko dituela adierazi du

■ *Tartean dago gaitz larri eta sendaezina duen preso bat, Kristina Arrizabalaga*

Agentziak / Madril

PRENTSA ohar baten bidez, Barne Ministerioak egunotan bost euskal preso hurbilduko dituela adierazi du. Barne Ministerioaren arabera, Ramon Irusta debarra Malagatik Burgosera eramango dute; Iñaki Ibabe bergararra Ourensetik Langraizera; Mari Atxabal eta Kristina Arrizabalaga Madrildik Langraizera eta Jose Luis Sebastian Herrera de la Manchatik Langraizera.

Bost preso hauen artean aipatzekoa da Kristina Arrizabalagaren kasua; izan ere, gaitz maniako depresiboa du, eta sendaezina eta larria da. Hori dela eta, abokatuek 92. artikulua aplikatu eta kalera dezatela eskatu zuten, eta orain epailearen erabakiaren zain dago. Abokatuek, halaber, askatu artean Euskal Herrira ekartzeko eskatu zuten, hobeto egongo delakoan. Beste presoek dagokienez, Ramon Irustak 16 urte daramatza espetxean, Iñaki Ibabek 17, Jose Luis Sebastianek hiru eta Mari Atxabalek sei hilabete eta oraindik epailetaren zain dago.

Barne Ministerioak, berriz, hurbiltze hauek iragartzeko orduan, presoek duten «eboluzio onagatik» hautatu dituela adierazi du. Espetxe aldaketa hauek gauzatze egun batzuk beharko direla iragarri du Barne Ministerioak, ohiko kondukzioan egingo baitira.

Iragarpen honen berri jakin bezain laster EA eta IU alderdiek euren balorazioak plazaratu dituzte, eta biek adierazi dute «positiboa» dela, baina ez dela nahikoa. X

SANTIAGO JIMENEZ / EFE



Olaziregiren alarguna Zamudion

CORO VILLARTA, urtarrilaren 30ean atentatuan hil zuten Eugenio Olaziregiren alarguna, Zamudioko (Bizkaia) kontzentrazioan izan zen atzo, Cosme Delclauxen eta Jose Antonio Ortega Lararen askatasuna eskatzeko. Miguel Olaziregi koinatuarekin joan zen Zamudiora, eta ez bata ez besteak ez zuten inolako deklaraziorik egin nahi izan. Hala ere, Carmelo Renobalesekin, Delclaux familiaren bozera-mailearekin, izan zen Coro Villarta, eta elkartasuna eta bahiketa konponduko den esperantza adierazi zion familiari.



BERMEOKO UDALA

ERROLDAREN ONARPENARI BURUZKO IRAGARKIA

1997ko Urtarrilaren 28. eguneko Dekretu bidez, Bermeoko Udaleko Alkate-udalburuak onartu dau:

LEHENENGOA:

1997. ekitaldiari jagokan 1. zenbakidun karguaz, **TRAKZIO MEKANIKAZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**ri buruzko errolda ordezkoa 53.545.682 pezetaz. Kobrantzako borondatezko Epealdia honako hau da:
Hasiera: 1997ko Otsailaren 15ean.
Amaiera: 1997ko Apirilaren 15ean.

BIGARRENA:

Kobrantza epealdia hasi baino hamabost egun lehenago hasiko da errolda jendaurrean jartzeko hilabeteko epealdia. Udaletxean egongo da errolda hori aztergai esandako epe horren barruan.

Erroldaren onarpena eta horren ondorioz egingo diren kitapenen aurka, Birjarpeneko Errekurtsoa jarri daiteke alkate-udalburuaren aurrean, errolda hau jendaurrean jartzeko epea amaizten dan egunetik hasitako hilabetearren barruan.

KARGU ZENBAKIA: 3.

ERREZIBO KOPURUA GUZTIRA: 5.140.

KONTZERTUA: TRAKZIO MEKANIKAZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

EKITALDIA: 1997.

DIRUKOPURUA: 53.545.682.

LEHENENGO ZERGADUNAREN IZENA: ABAD BILBAO ALBERTO

AZKARREN ZERGADUNAREN IZENA: ZUZETA EZKIBEL JOSE LUIS

OHARRA: 1997ko TRAKZIO MEKANIKAZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ORDAINAGIRIAK BILBAO BIZKAIA KUTXAKO (BBK) EDOZEIN BULEGOTAN ORDAINDUKO DIRA.

1996. URTEAN TRANSFERENTZIA BITARTEZ IZANDAKO ALTAREN KASUETAN, ORDAINAGIRIAK ERROLDAZ KANPO JAKINARAZIKO DIRA.

Bermeon, 1997ko Urtarrilak 31. ALKATEA.